



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urtarrilak 18

Vitoria-Gasteiz, 18 de enero de 2011

Presidencia

APROBADO EL INFORME SOBRE LA SITUACIÓN DE MUJERES Y HOMBRES Y LA EVALUACIÓN DE LAS ACTUACIONES PÚBLICAS EN MATERIA DE IGUALDAD

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la “*Memoria de actuación de los poderes públicos en ejecución del IV Plan para la igualdad de mujeres y hombres en la CAPV. Directrices de la VIII Legislatura*” y el “*Informe de cifras sobre la situación de mujeres y hombres en la CAE*”, ambos documentos elaborados por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

1. Memoria de actuación de los poderes públicos en ejecución del IV Plan para la igualdad de mujeres y hombres en la CAPV. Directrices de la VIII Legislatura

Además de la obligatoriedad de elaborar, a través de Emakunde, un Plan de Igualdad para cada legislatura, la Ley 04/2005 para la igualdad de mujeres y hombres establece también la necesidad de su evaluación periódica y final por parte del Gobierno. Respondiendo a esta obligatoriedad, Emakunde ha presentado la evaluación de la ejecución del IV Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAPV (IV Plan) en la VIII Legislatura. Esta evaluación tiene como objetivo conocer el grado de cumplimiento del plan por parte de las administraciones públicas.

Se ha evaluado a todos los organismos responsables de la ejecución del IV Plan, en total, **289 organismos** (35 de la Administración General; 3 Administración Foral y 251 de la Administración local). El objetivo general es dibujar las tendencias de la Administración Pública Vasca en cuanto a las políticas de igualdad de género durante los cuatro años de vigencia del IV Plan para la igualdad (2006-2009). Se analizan: actuaciones ejecutadas; el grado de implicación de las entidades; los recursos económicos implicados; el grado de cobertura de los programas y el impacto de los mismos.

El IV Plan tenía cuatro Ejes: Mainstreaming; Empoderamiento y participación sociopolítica; Conciliación y corresponsabilidad; y Violencia contra las mujeres. Todos presentan un **nivel alto de ejecución** de programas y objetivos.

Estos son los principales **resultados**:

1. Se han realizado más de 4000 actuaciones, la mayoría centradas en “*mainstreaming*” y en *empoderamiento y participación sociopolítica*.
2. Ocho programas aglutinan casi las dos terceras partes del total de actuaciones realizadas:

- a. Mejora en la prevención y atención ante la violencia doméstica y agresiones sexuales
- b. Presencia y participación de las mujeres en el ámbito cultural y artístico
- c. Mejora de las condiciones y posiciones de las mujeres que sufren discriminación múltiple y están en situación de riesgo de exclusión
- d. Erradicación del sexismo en los distintos ámbitos socio-culturales
- e. Equiparación de las condiciones laborales de mujeres y hombres
- f. Acceso al empleo en condiciones de igualdad
- g. Prevención y mediación ante la violencia en la escuela
- h. Integración de la perspectiva de género en los servicios de empleo

Los recursos económicos destinados (según los propios organismos) han sido los siguientes:

Mainstreaming: 13.940.236,48 euros

Empoderamiento y participación sociopolítica: 68.292.016,56 euros

Conciliación y corresponsabilidad: 36.650.714,9 euros

Violencia contra las mujeres: 17.857.196 euros

2. Informe de Cifras sobre la situación de mujeres y hombres en la CAV

El Consejo de Gobierno ha aprobado el Informe que Emakunde realiza anualmente para *conocer la situación de hombres y mujeres en la CAV*. Este informe presenta indicadores descriptivos de diversas áreas: demografía, salud, política, trabajo, tiempo, violencia de género, etc. Los datos siguen poniendo de manifiesto que **no hemos alcanzado la igualdad de hecho, la igualdad real**: persiste la desigualdad en el ámbito laboral, existe brecha salarial, persisten los roles sexistas de género, las desigualdades en el uso del tiempo y continúa la violencia contra las mujeres –por destacar algunos-.

El objetivo del informe es la sensibilización en torno a las desigualdades existentes entre mujeres y hombres en distintos campos como: la pobreza y la exclusión social; la renta personal media total y la desigualdad salarial media anual; y las labores domésticas y el cuidado de las personas.

El estudio “Cifras sobre la situación de mujeres y hombres en Euskadi” que anualmente publica Emakunde muestra, entre otros, los siguientes datos en referencia a los apartados citados:

- **Renta personal media total de mujeres y hombres**: La distancia de género en el poder adquisitivo sigue siendo abismal entre mujeres y hombres. De este modo, mientras la renta personal media total de las mujeres es de 11.857, la de los hombres casi es el doble, 23.224. Los

hombres ingresan más del doble que las mujeres por rentas de trabajo. Las mujeres con renta media anual inferior a 15.000 euros constituyen el 63,7% del total, mientras que entre los hombres no llegan al 30%.

- **Desigualdad salarial media anual:** Fuente INE (Encuesta de estructura salarial). Mujeres: 19.771,80 Hombres: 26.911,40 La diferencia salarial entre hombres y mujeres es de 7.139,50. Por sectores, las mayores diferencias se producen en el sector servicios, el que mayor número de mujeres emplea. Si se comparan los salarios que perciben las mujeres y los hombres con ocupaciones medias-bajas, siendo 100 el de los hombres, ellas perciben entre 67 y 65.
- **Pobreza y exclusión social:** El 82,9% del total de las personas en riesgo de pobreza, es decir, sin ingresos suficientes para optar a una vida en solitario, son mujeres. El porcentaje de riesgo de pobreza es 4 veces mayor en las mujeres que en los hombres. Mujeres: 82,9% Hombres: 17,1%. Casi el 50% de los hogares en los que vive una mujer sola se encuentran en situación de riesgo de pobreza o de ausencia de bienestar.
- **Cuidado de personas:** Las personas que realizan funciones de cuidado de personas en el hogar dedican una media de 1 hora y 43 minutos al año al cuidado de niños/as y 2 horas y casi 10 minutos al cuidado de personas adultas. Al igual que en otras tareas reproductivas, las mujeres han destinado más tiempo medio al día que los hombres, 41 minutos en el caso del cuidado de niños/as y 17 en el cuidado de personas adultas.

El informe completo se puede descargar el pdf desde la página web de Emakunde

www.emakunde.euskadi.net

Interior

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LOS PLANES DE EMERGENCIA EXTERIOR DE DIVERSOS ESTABLECIMIENTOS

El Consejo de Gobierno ha aprobado los Planes de Emergencia Exterior de diversos establecimientos en cuya actividad intervienen sustancias catalogadas como peligrosas.

La Ley de Gestión de Emergencias prevé la elaboración de este tipo de planes especiales dirigidos a hacer frente a aquellos riesgos, contemplados en la Norma Básica de Protección Civil, cuya naturaleza requiere la aplicación de una metodología técnico-científica concreta.

Entre dichos planes se incluyen los de emergencia exterior que deben elaborarse para aquellos establecimientos incluidos en el ámbito de aplicación del conjunto normativo relativo a las medidas de control de los riesgos inherentes a los accidentes graves en los que intervienen sustancias peligrosas.

Conforme a dicha normativa, los órganos competentes de las Comunidades Autónomas elaborarán, con la colaboración de los industriales, un Plan de Emergencia Exterior para prevenir, y en su caso mitigar, las consecuencias de los posibles accidentes graves previamente analizados, clasificados y evaluados, que establezca las medidas de protección más idóneas, los recursos humanos y materiales necesarios y el esquema de coordinación de las autoridades, órganos y servicios llamados a intervenir.

En la elaboración de los Planes de Emergencia han participado las diversas instituciones y agentes implicados en los mismos, habiendo obtenido informe favorable de la Comisión de Protección civil de Euskadi en fecha de 3 de noviembre de 2010, así como la pertinente homologación, adoptada por acuerdo unánime de la Comisión Nacional de Protección Civil en fecha de 17 de noviembre de 2010.

Los establecimientos a los que se aplicarán dichos planes son los siguientes:

- Acideka, S.A. (Terminal Marítima de Zierbena-Bizkaia)
- Maier, S. Coop. (Ajangiz-Bizkaia)
- Esergui, S.A. (Zierbena-Bizkaia)
- Tenneco Automotive Ibérica, S.A. (Ermua-Bizkaia)
- Puerto Autónomo de Bilbao
- Aceros Inoxidables Olarra, S.A. (Loiu-Lujua, Bizkaia)
- Ilarduya Productos de Fundición, S.L.U. (Amorebieta-Etxano, Bizkaia)

Por otro lado, el Consejo de Gobierno ha aprobado, igualmente, la revisión del Plan de Emergencia Exterior de Oxinorte Operaciones, S.A.

Empleo y Asuntos Sociales

APROBADO EL DECRETO QUE REGULA LAS AYUDAS DE EMERGENCIA SOCIAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy el decreto que regula la concesión de las Ayudas de Emergencia Social (AES). El desarrollo del decreto se llevará a cabo mediante una orden de la consejera de Empleo y Asuntos Sociales, Gemma Zabaleta. La aprobación del decreto supone la culminación del desarrollo legal de la Ley 18 /2008 para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social en lo referente a prestaciones económicas, quedando sólo pendiente el decreto de convenios de inclusión que se encuentra a la espera del trámite parlamentario de la modificación de la Ley 18 /2008.

El decreto aprobado es un texto que sustituye al decreto anterior, de más de diez años de antigüedad, que había quedado obsoleto por la entrada en vigor de la citada ley. Su principal característica es que permite elaborar una orden anual de AES adaptada a las necesidades y condiciones de cada año, procurando una mejor información sobre las AES, una ordenación de la prestación y el establecimiento de criterios homogéneos en todo el territorio de la comunidad autónoma. De la misma manera, da cumplimiento a aquellos mandatos sobre las AES que se encuentran en la ley.

La orden que desarrollará el decreto recoge los porcentajes de ayudas a recibir por las familias en función de sus ingresos y de su patrimonio, que no podrá exceder de los 8.000 euros (excluida la vivienda habitual con su garaje y trastero). Se fija el acceso a las AES para ingresos inferiores a la cantidad equivalente al 150% de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI), tal y como marca la ley.

Asimismo, se establece un sistema de información entre los ayuntamientos y el Gobierno de carácter trimestral que permitirá conocer puntualmente la evolución del programa y la concesión de las ayudas a lo largo del año.

Las AES son ayudas económicas de carácter subvencional dirigidas a cubrir gastos de emergencia en conceptos como el alquiler, hipoteca, mantenimiento, reparación y equipamiento de la vivienda, así como de necesidades primarias, como el vestido o gasto médicos no cubiertos por el sistema público (odontología, óptica, etc).

Estas ayudas subvencionales configuran junto con las prestaciones de derecho (RGI y Prestación Complementaria de Vivienda) el sistema vasco de garantía de ingresos.

17,3 millones para AES

Por otra parte, el gobierno ha aprobado un presupuesto de 17,3 millones de euros para las prestaciones económicas de las ayudas de emergencia social (AES). Este montante irá librándose de forma progresiva a los ayuntamientos a lo largo del año.

Cultura

LA ERMITA DE NUESTRA SEÑORA DE UDIARRAGA DCECLARADA BIEN CULTURAL CALIFICADO

A propuesta de la consejera de Cultura, el Consejo de Gobierno ha aprobado el Decreto por el que se declara la Ermita de Nuestra Señora de Udiarraga en Ugao-Miraballes (Bizkaia) como Bien Cultural Calificado con la categoría de Monumento. El ámbito de delimitación de la protección incluye, por un lado, el propio edificio en sí y, por otro, el entorno urbanizado que lo circunda.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales, estéticos y visuales del entorno de la ermita de Nuestra Señora de Udiarraga. Dentro de la estructura de la villa, forma parte de un espacio urbano ubicado en un lugar destacado. La debida protección y puesta en valor del bien implica la protección de espacios adyacentes a la ermita sin los cuales no se entiende su carácter ceremonial originario, la unidad del propio conjunto y su inclusión en la trama urbana.

Ermita

La ermita existente de Nuestra Señora de Udiarraga, situada en el casco de la villa, es posterior a la primitiva demolida en 1776 y que existió en el monte conocido como Udiarraga dentro del término de Ugao-Miraballes.

El estado de ruina del santuario medieval propició la reedificación de una nueva ermita, en la actual ubicación, cercana a calzada del camino real de Castilla y a la población.

Se concluyó en 1779 y en sus más de 200 años de existencia, ha sufrido alguna transformación como la casa cural que se le adosó al sur en época bastante contemporánea. En una reforma reciente se ha eliminado la construcción adosada, que envolvía toda la cabecera, sin embargo, la actuación adosa un nuevo edificio de una altura.

El diseño y redacción del proyecto fue realizado en 1776 por el maestro arquitecto Juan de Iturburu interviniendo como constructor, para el remate de la obra el maestro Martín de Zabala.

La fachada es el elemento que mejor la define. La portada principal, de estilo rococó, se orienta hacia el camino original de la villa y se enmarca con pilastras toscanas rematadas por un entablamento liso con cornisa moldurada, que recorre perimetralmente el edificio. La composición se remata, en su parte superior, con una espadaña de dos cuerpos con líneas curvas enlazando los contrafuertes y lateralmente, dos estribos con chapeado avolutado, de marcado estilo barroco, contribuyen dinamizando la composición.

En el cuerpo bajo, de la fachada principal, se abren tres vanos adintelados. En el eje sobre el acceso central se abre un óculo moldurado y abocinado en la parte superior cerrado con una reja radial.

La espadaña consta de un cuerpo bajo de dos vanos y uno superior de uno, todos ellos para campanas. Los entrepaños del cuerpo central bajo presentan placa recortada lisa y alfeizar. Cañones sobre capiteles de placa conforman las cobijas de las campanas y con este mismo criterio formal se realiza el vano superior. La composición se corona con un frontón triangular en cruz y veleta.

La ermita dispone de un segundo acceso adintelado recercado con placa lisa y centrado en el tramo primero del lado de la epístola. Su puerta es de dos hojas asimétricas con el montante jónico tallado y en la actualidad se encuentra inutilizado.

La fábrica está aparejada en mampuesto visto de piedra arenisca y cantos de río con mezcla de mortero y atiende a una de las constantes de la arquitectura barroca vasca: la severidad. El aparejo del zócalo es a base de grandes sillares de caliza, mientras que en el área de fachada, vanos, pilastras y espadaña, son de sillería arenisca muy regularmente labrada.

Interiormente el templo dispone de una amplia nave distribuida en dos tramos prácticamente iguales más tramo de crucero con brazos acusados y cabecera ochavada de cinco paños. A los pies se sitúa el coro con frente de tres tramos de arcos que cargan en dos pilares. La solería del coro es de madera, como también el barrotaje torneado del antepecho. La sacristía se sitúa en un pequeño espacio acogido al brazo izquierdo del transepto.

Los muros enlucidos y pincelados imitando sillería junto con pilastras toscas conforman la estructura portante que soporta fajones de medio punto que parcelan la bóveda en tramos. En los ángulos del ábside y del crucero, los soportes son ménsulas de vaso.

Los dos tramos de la nave y el crucero se coronan con bóveda de cañón, penetradas por lunetos, mientras que la capilla mayor se cubre con aristas radiales.

La iluminación se realiza fundamentalmente a través de vanos situados en los brazos del crucero y a ambos lados de la nave. Los vanos son adintelados con leve abocinamiento hacia el interior. Un óculo moldurado y abocinado se ubica sobre el coro, en el hastial.

Bienes muebles vinculados

Retablo de fines del XVII (1680-1681), procedente de la antigua ermita de donde fue trasladado en el XVIII a la nueva ubicación. Obra de los maestros arquitectos cántabros Pedro de Lainz Mazo y Juan Alonso de Viadero, se trata de uno de los primeros retablos del barroco ornamentado en Bizkaia.

Es una obra de madera de nogal que consta de banco, cuerpo y ático con tres calles enmarcadas por columnas salomónicas decoradas con vides. Lleva machón recurvado en el cierre, profunda hornacina central y hornacinas laterales con cartelas en el tambanillo. Flanqueando el remate, figuran sendos escudos de Castilla y el antiguo de Miraballes.

En el cuerpo del retablo en la calle central se ubica la imagen gótica de Andra Mari de Udiarra. Se trata de una talla del siglo XIV, en actitud orante y que ha conocido varias restauraciones. En los laterales se encuentran las imágenes de San José con niño y San Antonio de Padua, coetáneas al retablo; y en el ático una representación renacentista de Cristo Crucificado.

El retablo conserva policromía coetánea, dorada y con algún estofado en elementos ornamentales.

Lehendakaritza

EMAKUME ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA ETA BERDINTASUN ALORREAN ERAKUNDEEK EGINDAKO LANAREN EBALUAZIOA ONARTU DU GOBERNU KONTSEILUAK

Gobernu Kontseiluak gaur honako dokumentuak onartu ditu: “*Emakume eta Gizonen IV Plana botere publikoen alorrean gauzatzeari buruzko jarduera*” eta Emakume eta Gizonen egoerari buruzko Zifrak txostenak, biak Emakundek-Emakumearen Euskal Institutuak egindakoak.

1. *Emakume eta Gizonen IV Plana botere publikoen alorrean gauzatzeari buruzko jarduera txostena*

04/2005 Legeak Gobernua behartzen du legegintzaldi bakoitzean Berdintasun Plan bat onartzera, eta horrekin batera behartzen du baita ere plan hori gauzatzeari buruzko ebaluazioak egitera. Agindu honi jarraituz, Emakundek egindako “*Emakume eta Gizonen IV Plana botere publikoen alorrean gauzatzeari buruzko jarduera txostena*” onartu du gaur.

289 erakunde aztertu dira (Administrazio Orokorreko 35, Foru administrazioko 3 eta tokiko administrazioko 251). Berdintasun plana gauzatzean nagusi diren tendentziak zeintzuk diren ikustea da helburua. Horretarako aztertzen da ze akzio burutu diren; zenbatekoa izan den administrazio bakoitzaren inplikazioa, erabili dituzten errekurtsioak eta programek izan duten eragina.

IV Planak lau ardatz zituen: Mainstreaming; ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoak; lana eta familia bateratzea eta erantzukizunak banatzea; eta emakumeen aurkako indarkeria.

Honako hauek emaitzak:

- 4.000 ekintza baino gehiago egin dira, gehienak maistreaming eta ahalduntzeari buruzkoak
- Ekintzen bi heren honako zortzi programek betetzen dute:
 - i. Indarkeriaren prebentzio eta artatzean hobekuntzak
 - j. Emakumeen presentzia kultura eta mundu artistikoan
 - k. Diskriminazio bikoitza eta eskusio arriskuan dauden emakumeen egoeraren hobekuntza
 - l. Sexismoaren desagerpena hainbat alor sozio-kulturaletan
 - m. Emakume eta gizonen lan baldintzen berdintzea
 - n. Lan egoeraren inguruko berdintasuna
 - o. Biolentziaren prebentzioa eskolan
 - p. Enplegu zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea

Erabilitako errekurtso ekonomikoak hauek izan dira (erakunde bakoitzak emandako datuen arabera):

Mainstreaming: 13.940.236,48 euro

Ahalduntzea eta parte hartze sozio-politikoa: 68.292.016,56 euro

Lana eta familia bateratzea eta erantzukizunak banatzea: 36.650.714,9 euro

Emakumeen kontrako indarkeria: 17.857.196 euro

2. “Emakume eta Gizonen egoerari buruzko zifrak”

“Euskadiko emakume eta gizonen egoerari buruzko zifrak” ikerketak demografia, osasuna, politika, lana, indarkeria... eta beste hainbat adierazle ditu kontuan urtero emakume eta gizonen egoera aztertzeko. Aurtengo txostenak erakusten du oraindik ez dagoela berdintasunik gizon eta emakumeen artean. Izan ere, desberdintasunak daudela lan munduan, denboraren erabileran eta beste hainbat alorretan. “Euskadiko emakume eta gizonen egoerari buruzko zifrak” ikerketak honako datuak uzten ditu agerian, besteak beste:

- **Eskuratutako errenta pertsonalak:** Errenta pertsonalari dagokionez, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak oso handiak dira oraindik. Emakumeen batz besteko errenta pertsonala 11.857 eurokoa den bitartean, gizonena ia bikoitza da: 23.224 euro. Gizonek emakumek baino ia bikoitza eskuratzen dute lan errentari dagokionez. Artero 15.000 tik beherako errenta pertsonala duten pertsonen artean %63,7 emakumeak dira, eta gizonak ez dira %30era iristen.
- **Soldata:** Iturria, INE (Encuesta de estructura salarial). Emakumeak: 19.771,80 Gizonak: 26.911,40 . Emakume eta gizonen arteko soldata diferentzia 7.139,50 eurokoa da. Sektoreak kontuan izanda, diferentzia handienak zerbitzu sektorean ematen dira, hain justu, emakume gehien duen sektorea. Erdi-beheko lanpostuetako soldata kontutan hartzen baditugu, gizonena 100 bada, emakumeena 67 eta 65 artekoa da.
- **Txirotasuna eta gizarte-bazterketa:** Txirotasuna eta gizarte-bazterketa jasaten dutenen % 82,9-a emakumeak dira. Pobrezia arriskua lau aldiz handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Emakumeak : 82,9% Gizonak: 17,1%.
- **Etxeko-lanak eta pertsonen zaintza:** Emakumek gizonek baino 2 ordu era 23 minutu gehiago ematen dituzte urtean etxeko-lanetan eta haurren, nagusien , gaixoen eta menpeko pertsonen zaintzan....

Txosten osoa eskuragai dago Emakunderen web gunean (Ikusi “Zifrak”): www.emakunde.euskadi.net

Herrizaingo Saila

GOBERNU KONTSEILUAK HAINBAT ENPRESAREN KANPOKO LARRIALDIETARAKO PLANAK ONARTU DITU

Gai arriskutsuztat jotzen direnak erabiltzen dituzten hainbat enpresaren Kanpoko Larrialdi Planak onartu ditu Gobernu Kontseiluak.

Larrialdiak Kudeatzeko Legeak halako plan berezien sorrera ezartzen du. Babes Zibileko Oinarrizko Araudian aipatzen diren eta beren izaeragatik metodologia tekniko eta zientifiko zehatza behar duten arriskuei aurre egiteko egingo lirateke.

Gai arriskutsuak tartean diren ezbehar larriekin lotutako arriskuen kontrol neurriak biltzen dituen araudiaren aplikazio-eremuko enpresentzat egin beharreko Kanpoko Larrialdi Planak ere sartzen dira aipatutako planen artean.

Araudi horren arabera, Autonomia Erkidegoetan eskumena duten organoek, industria organoen laguntzaz, Kanpoko Larrialdi Plana egin behar dute, balizko istripu larriak aurretik aztertu, sailkatu eta balioztatuta, horien ondorioei aurre egin eta, ahal izanez gero, horiek arintzeko. Planak babes-neurri egokienak, beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztu eta kasu bakoitzean parte hartu behar duten agintari, erakunde eta zerbitzuak kudeatzeko eskema bat ezarri behar du.

Larrialdi Planak egiteko lanetan horretan inplikaturik dauden hainbat erakunde eta eragile aritu dira. 2010eko azaroaren 3an Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen aldeko txostena jaso zuten, eta 2010eko azaroaren 17an Babes Zibilaren Batzorde Nazionalak, aho batez, homologatu egin zituen.

Aipatutako planak enpresa hauetan aplikatuko dira:

- Acideka SA (Zierbenako Itsas Terminala, Bizkaia)
- Maier Koop. S. (Ajangiz, Bizkaia)
- Esergui SA (Zierbena, Bizkaia)
- Tenneco Automotive Ibérica SA (Ermua, Bizkaia)
- Bilboko Portua
- Aceros Inoxidables Olarra, S.A. (Loiu, Bizkaia)
- Ilarduya Productos de Fundición, S.L.U. (Zornotza, Bizkaia)

Bestalde, Gobernu Kontseiluak Oxinorte Operaciones, S.A enpresaren Kanpoko Larrialdi Plana aztertzea ere onartu du.

Lan eta Gizrte Gaietako Saila

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETUA ONARTU DA

Jaurlaritzaren Kontseiluak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) emateko baldintzak arautzen dituen dekretua onartu du gaurko bileran. Dekretu hori Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu baten bidez garatuko da. Dekretu hori onartuz azken burura eramaten da Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legea diru-prestazioei dagokienez, eta gizarteratzeko hitzarmenei buruzko dekretua baino ez da geratzen egiteke, 18/2008 Legea aldatzeko Legebiltzarrean egiten ari diren izapideak noiz amaituko zain.

Onartutako dekretua aurrekoa ordezkatzeko duen testua da; izan ere, lehengoak hamar urte baino gehiago zituen, eta aipatutako legea argitaratu zenean zaharkituta geratu zen. Dekretu berriaren ezaugarri nagusia GLLei buruz urtero agindu bat emateko aukera ematea da, urte bakoitzeko beharriari eta baldintzei egokitzeko; horrela, informazio hobea eman ahal izango da GLLei buruz, prestazioa hobeto antolatu ahal izango da, eta irizpide homogeenak ezarri ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidego osoan. Era berean, legean GLLei buruz aurkitzen diren aginduak betetzen ditu.

Dekretua garatuko duen aginduan diru-sarreraren eta ondarearen arabera familiek jasoko dituzten portzentajeak jasoko dira. Ondarea ezin izango da 8.000 eurotik gorakoa izan (ohiko etxebizitza, garajea eta trastelekua salbu). Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren % 150 baino diru-sarrera txikiagoak dituztenek GLLak jaso ahal izango dituztela xedatzen da, legeak agintzen duen moduan.

Horrez gain, udalen eta Jaurlaritzaren arteko hiru hileroko informazio-sistema ezartzen da, urtean zehar programak duen eboluzioa eta ematen diren laguntzak zein diren unean-unean jakin ahal izateko.

GLLak subentzio izaerako diru-laguntzak dira, ondoko gastuei aurre egitera bideratuak: etxebizitzaren alokairua, hipoteka, mantentzea eta ekipamendua, eta lehen mailako beste beharriari; besteak beste arropa eta sistema publikoak ordaintzen ez dituen mediku-gastuak (odontologia, politika, etab.)

Diru-laguntza horiek osatzen dute diru-sarrerak bermatzeko sistema, eskubideko prestazioekin batera (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria).

17,3 milioi GLLetarako

Bestalde, Jaurlaritzak 17,3 milioi euroko aurrekontua onartu du gizarte-larrialdietarako laguntzetarako (GLL). Kopuru hori arian-arian eskuratuko zaie udalei urtean zehar.

Kultura Saila

UDIARRAGAKO ANDRE MARIAREN ERMITA SAILKATUTAKO KULTURA ONDASUN DEKLARATU DA

Kulturako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak Ugao-Miraballesen dagoen (Bizkaia) Udiarragako Andre Mariaren ermita, Monumentu izendapenez, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko duen dekretua onartu du. Babeserako mugaketak eraikina bera eta haren ingurumari urbanizatua hartzen ditu.

Proposatzen den mugaketa justifikatzen da Udiarragako Andre Mariaren ermitaren ingurumari ingurumen-balioak, estetikoak eta bisualak babestu behar direlako. Herriaren egituraren barruan, hiri-inguruaren zati bat da, halako toki nabarmen batean kokatua. Ondasuna behar bezala babesteak eta balioesteak zera dakar, ermitaren ondoko inguruak ere babestea, bestela ez baita ulertzen ondasunaren jatorrizko izaera zeremoniala, ezta multzoaren batasuna bera ere edo hiri-bilbearen barnean egotea.

Ermita

Orain herrigunean dagoen Udiarragako Andre Mariaren ermitaren aurretik, jatorrizko beste bat egon zen Ugaoko udal barrutiko Udarriaga izeneko mendian, 1776. urtera arte.

Erdi Aroko santuario haren hondamendi egoera zela eta, ermita berri bat berreraiki zuten, oraingo tokian, Gaztelako errege-bidetik eta herrigunetik gertu.

1779. urtean amaitu ziren lanak. Handik hona pasa diren 200dik gora urteetan aldaketa batzuk izan ditu, adibidez duela ez hainbeste hegoaldean atxikitako apaiz-etxea. Burualde osoa estaltzen zuen atxikitako eraikina arestiko eraberritze batean bota dute, baina horrekin batera altuera bateko eraikin berri bat altxatu dute.

Proiektuaren diseinua eta idazketa 1776an egin zuen Juan de Iturburu arkitekto maisuak, eta lana bururatzeko eraikitzaile gisa Martín de Zabala maisuak jardun zuen.

Ermitaren elementu bereizgarriena fatxada da. Portada nagusia, rococo estilokoa, hiribilduaren jatorrizko biderantz orientatuta dago, eta erlaitz molduradun taulamendu lau batez errematatutako pilastra toskanarrak ditu alboetan; taulamendu horrek eraikinaren perimetro osoa inguratzen du. Konposizioa, goialdean, lerro makodun bi gorputzeko kanpai-horma batez amaitzen da, non lerro makodun horiek kontrahormak lotzen dituzten; xaflatzatze bolutatua duten alboetako estriboek, estilo barroko garbikoek, halako bizitasun bat ematen diote konposizioari.

Fatxada nagusiko behe-gorputzean hiru bao burudun irekitzen dira. Sarbide nagusiaren gaineko ardatzean, argizulo molduradun bat irekitzen da, goialdean txararbeldua eta sare erradial batez itxia.

Kanpai-hormak behe-gorputz bat du, bi baoz osatua, eta goi-gorputz bat, bao bakarrekoa; bao guztiak kanpai-tokiak dira. Behe-gorputz nagusiko horma-atalek muxarratutako plaka laua eta leiho-barrena dituzte. Plaka-kapitelen gaineko kanoiek osatzen dituzte kanpaien bizkar-teilak, eta eraketa-irizpide honixe jarraituz osatzen da goiko baoa. Konposizioaren buruan, frontoi triangeluarra, gurutze eta haize-orratzarekin.

Ermidak beste sarbide bat du, atalburuduna, plaka lauaz inguratua eta epistolaren aldeko lehen zatian zentratua. Atea bi orri asimetrikoz osatua dago, muntaga joniko zizelkatuaz, eta gaur egun ez dago erabilgarri.

Erima moldatua dago hareharrizko ageriko harlangaitzez eta mortero-nahasia duten errekarritz. Euskal arkitektura barrokoak izan ohi duen ezaugarria islatzen du: zorroztasuna. Oinaldearen aparejua kareharrizko harlangaitz handiz egina dago. Fatxadaldean, berriz, bao, pilastra eta kanpai-hormak oso era erregularrean landuriko hareharrizko harlanduzkoak dira.

Barrualdetik, ermitak nabe zabal bat du, ia berdinak diren zi zatitan banatua, eta beso nabariak dituen gurutzadura-zati bat eta bost horma-atal dituen burualde oktagonala. Behealdean korua dago, aurrealdeak bi pilaretan bermatzen diren hiru arkudun zati dituela. Koruko zolua zurezkoa da, bai eta kareleko barra handi torneatuak ere. Sakristia transeptuaren ezkerreko espazio txiki batean dago.

Harlandu-itxurako horma luzitu eta margotuek, pilastra toskanarrekin batera, ganga hainbat zatitan banatzen duten erdi-puntuko parpain-arkuei eusten dien egitura osatzen dute. Absidearen eta gurutzaduraren angeluetan, euskarriak baso-mentsulak dira.

Nabeko bi zatien burualdea kanoi-ganga batez amaitzen dira, lunetoz zulatua. Kapera nagusia, aldiz, ertz erradialez bururatuta dago.

Argitasuna gurutzadurako eta alboetako baoen bitartez igarotzen da, nagusiki. Bao burudunak dira, barrualderantz halako txaranbeldu txiki batekin. Koro gainean argizulo molduratu bat dago, pinoian.

Loturiko ondasun higikorrak

XVII. mende bukaerako erretaula (168-1681), ermita zaharretik XVIII. mendean oraingo tokira eraman zena. Kantabriako Pedro de Lainz Mazo eta Juan Alonso de Viadero maisuen lana da. Bizkaiko erretaula apaindu barroko lehendabizietako bat da.

Intxaur-zurez egindako lana da, predela, gorputza eta atikoa dituen; mahastiz apainduriko salomondar kolomaz inguratutako hiru kaletan antolatuta dago. Itxituren makotutako ostikoa du; horma-hobi sakon bat erdialdean, eta frontoian kartelak dituzten horma-hobiak alboetan. Errematearen alde bietan, Gaztelako armarrria eta Ugaokoa armarrri zaharra daude.

Erdiko kaleko gorputzean Udiarragako Andre Mariaren irudi gotikoa dago. XIV. mendeko tailua da, otoiitzean, hainbat eraberritze izan dituena. Alboetan, San Jose haurrarekin, eta Paduako san Antonio, erretaularen garaikideak; atikoan Kristo Gurutzatuaren irudia.

Erretaularen polikromia ere garaikidea da, urreztatua, eta zenbait estofatu ditu apaindurazko elementuetan.